

D.V.
18-01-2010

OPINIÓ 13

BAI HORIXE
ARANTZA URRETASIZKAIA

Sagardoaren gozoa

Gaurko sagardotegiek
zenkusi gutxi dute
duela mende batek
atzera gertatzen
zenarekin



Hanegartia iruditzen zait edozein ohitura tradizio sakratu bilakatzeko dugun joera. Ekimen edo gertakizun bat hiruzpalean aldiz errepikatzen dugunean, tradizio hitza eranstean diogu era handik gutsura beridankoa dela esan eta entzungo dugu, sarritan berikotasun hori norberaren bizitzaren iraupenera mugatzen bada ere. Hots, berikotasuna ez da berikoa.

Nekaz aurkituko dugu gure inguru hurbilean tradizioari guri haina garrantzi emango dijon gizarterik. Gutako askorentzat, gauza edo ekintza bat berikoa dela esaten denean, aldaezina da, are gehiago,

ula izanda ere, gustiz mankorra izanda ere, bekatu da, asaba zaharrekiko traizioa.

Noski, historiaren irakurketarik arinena gexurtatzen du tradizioen betikotasuna. Apenas baitago betiko ezer gure artean eta horri esker iraun baitu bizirik gure espezieak, gure jendarteak.

Joan den astean, sagardotegien kontua zela-ta, ugariak izan dira jatetxe eta eda- netxe horien kutsu tradizionala aldarri- katu duten ahotsak. Baina gaurko sgar- dotegiek zerikusi gutxi dute duela mende batetik atzera gertatzen zenarekin. Sagar- doak berak mendeak daramatza gure ar- tean, historiagileen esanetan ardoa baino dezente zaharragoa da, sagarrondo- a mahastia baino mende batzuk lehenago ezagutu genuelako.

Mendetan ia baserri guztiek zuten do- larea eta bertan egiten zuten etxerako sa- gardoa. Bakar batzuek etxean edaten zena baino gehiago ekoizten zuten eta baserri horietan biltzen ziren inguruko biztan- leak, sagardoa edatera eta suertatzen zena jatera. Liturgiarik gabe. Kobazulotik jatetxetik baino gehiago zuten leku horietan trebatzen ziren bertsolariak eta gokatzen ziren gainerakoak.

Liturgiarik gabe. Ez derrigorrez zutik, baizik eta tokatzen ziren aulki eta jar- lekuetan. Ez zuten bakailao tortila jaten, edo agian bai. Txuletarik ere ez, segurue- nik. Intxaurrak agian, gazta ahal zenetan. Eta batzuetan, sabela sagardo- z bete ondoren, bertan egiten zuten lo, etxe-koen konfiantzakoak izanik horretarako bai- mena izaten zutelako. Noski, gizo- neskoak ziren, salbuespenik gabe.

Asken urteotan, ordea, liturgia oso bat landu da sagardotegien inguruan eta ho- rrekin batera askoren bizibide bilakatu da eta inguruko askoren amets gaiztoa. Ber- tara eramaten ditugu lagun kanpotarrak, asmatu berria den betiko tradizioa ezagu- tu eta miretsi dezaten. Bertan amesten dugu katea ez dela eten eta ez dela etengo.

On egin degigula.